EIBARKO UDALA

# EIBAR 2025 PLAN ESTRATEGIKOA









2016ko ekaina

# Aurkibidea


1 Baldintzatzaile estrategikoak eta AMIA matrizea 4

2 Formulazio estrategikoa: Eibar 2025 10

3 Proiektu estrategikoak 16

4 Hedapen estrategikoa 21

5 Planaren kudeaketa 52

6 Parte-hartze prozesua 61

**Dokumentu hau Eibarko 2025. urterako Plan Estrategikoaren behin betiko txostena da**. Proiektua 2013an hasi zen, Mugikortasun Planarekin batera, eta aurten amaitu da, ekainean, Eibarko Udaleko Hirigintza Batzordeak 2015eko urrian aurkeztu egin zen proposamen teknikoa haren planteamendu estrategikoekin bat zetorrela erabaki ondoren. Behin betiko onartu aurretik, herritarrek parte hartzeko prozesu bat abiatu zen.

LKSk egindako proposamen teknikoaren oinarria alderdi politiko guztiek onartutako diagnostiko bat zen. Diagnostiko hori egiteko, informazio estatistikoa erabili zen, eta bilerak egin ziren eragile ekonomiko nahiz sozialekin eta udal-arloetako arduradunekin.

2016ko urtarrilean, herritarrek parte hartzeko prozesu bat antolatzeko lanak hasi ziren. Prozesua apirilean amaitu zen. Herritarren proposamenak kontuan hartu dira Plana osatzen duten proiektu estrategikoak idaztean.



# Baldintzatzaile estrategikoak eta AMIA matrizea

# 1. Baldintzatzaile estrategikoak

### Adierazle soziodemografikoak

- Demografia: Eibarrek biztanleria galdu zuen, bereziki 1990eko eta 2000ko hamarkadetan. Hala ere, 2008tik aurrera, biztanleria 27.000 biztanleko kopuruan egonkortzen hasi zen.







- Zaharkitzea: biztanleria zahartzen ari da (batez besteko adina: 45,7 urte). Eibarren, biztanleen %23,9k 65 urte baino gehiago ditu, EAEn eta EB-28an baino gehiago (hurrenez hurren, %20,2 eta %18,2). Gizartearen zahartze hori nabarmenagoa da zenbait auzotan; hori dela eta, komunitate-, gizarte- eta asistentzia-zerbitzuak eta -ekipamenduak hobetu beharko dira.

- Enplegua: 1.041 lanpostu galdu dira 2008tik-2014ra, beraz langabeziak gora egin du. 2016ko lehenengo hiruhilebetean, Eibar izan da Gipuzkoako lanagabezi tasa altuena duen udalerria.

- Gizarte-estaldura: Laguntzak jasotzen dituzten unitateen kopurua handitu da: 5 urtean (2008-2013), DSBEa jasotzen duten bizikidetza-unitateen ‰-a halako hiru baino gehiago handitu da, eta GLLaren ehunekoa ere portzentajezko 4 puntu handitu da, mila biztanleko, 2008az geroztik.

### Baliabideak

•Hirigintza: azken urteetan esku-hartze garrantzitsuak (Mogel) egin badira ere, asko dago egiteko oraindik ere. Udalerriak hirigintza-garapen azkarra izan zuen XX. mendeko bigarren erdialdean, eta ondorioz, hutsune nabarmenak azaldu dira orain, hiri-konfigurazioari, irisgarritasunari, mugikortasunari eta birgaikuntzari dagokienez, besteak beste.

- Hiri-oreka: Auzoen eta erdigunearen arteko hiri-antolaketa hobetu behar da, eta barne-mugikortasun iraunkorra eta motorrik gabea, zirkulazioa arintzeko guneak, oinezkoentzako guneak eta zirrikitu-gune adeitsuagoak sustatu, eta berdegune-kopurua handitu, etab.



- Ingurunearen babesa eta balioespena: Eibarrek natura- eta ondare-baliabide garrantzitsuak ditu; babestu, berreskuratu eta balioetsi beharreko elementuak dira. Lehentasunezkoa da industria-ondarea, naturaguneak eta nekazaritza-azalera baliagarria babestea eta balioestea, bai eta, besteak beste, energia-eraginkortasuna hobetzeko, kontsumo iraunkorra sustatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko estrategiak ezartzea ere.

- Etxebizitza: etxebizitza-parke zaharkitua (%46k baino gehiagok 50 urtetik gora du). 1.851 familia-etxebizitza huts daude, eta etxebizitza-merkatua ez da dinamizatzen, azken urteetan prezioak jaitsi badira ere.

## Ekonomia

- Ekonomiaren bilakaera: eskualdeko industria-eragile ekonomiko gisa lidergoa galdu arren, bere merkataritza-erakargarritasunari eutsi dio. Izan ere, udalerriko per capita BPGa %18 txikiagoa da EAEko batez bestekoa baino. 2008az geroztik, 428 produkzio-establezimendu galdu direlako gertatu da hori. Gainbehera hori bereziki larria izan da industria-sektorean (azken bost urteetan, %28 galdu da).

- Produkzio-sarean, mikroenpresak dira nagusi (%93,1ek 10 langile baino gutxiago ditu). Ez dago enpresa traktorerik.

- Hirugarren sektorea: merkataritza-dentsitate handia dago, batik bat saltokiak, garraioa eta ostalaritza. Garrantzi ekonomikoa izateaz gain, merkataritza- eta ostalaritza-sektorea udalerriko gizarte-dinamikaren eragile antolatzailea da. Eskualdeaz gaindiko zerbitzu batzuk Eibarren daude, eta hori beste erakarpen-iturri bat da.

- Azpiegitura garrantzitsuak: berrikuntza (Tekniker, Berreibar), ekintzailetza (BIC Gipuzkoa Berrilan) eta prestakuntza (UPV y Armagintza Eskola). Eibar Zientziaren eta Berrikuntzaren Hiri gisa berritu izana kudeatu beharreko aktibotzat hartu behar da.
- Ondo komunikatutako industria-lurzorua, ekonomia berriko jardueren eskura.
- Produkzio-sarea eta ekintzailetza dinamizatzea, alderdi guztietan: Lehentasunezkoa da ekonomiaren eta jarduera berrien sustapenean ahalmenak eta eskumenak dituzten eragile eta erakunde guztiak koordinatzea, jarduera horiek Eibarren kokatzen diren ekimen berriak izan zein udalerrian bertan sortutakoak izan. Erabil daitezkeen baliabide guztiek batera eta koordinatuta jardutea estrategia nagusietako bat da, produkzio-sarea dinamizatzea bideratuko duen ingurune bat sortu nahi bada.

## Hiri Marka

- Kokapena: Eibarrek kokapen geografiko estrategikoa du Euskadiko konexio-ardatz nagusietako batean. Errepidez, hiru hiriburuetatik azkar irits daiteke Eibarreraino; hain zuzen, ordu-erdian.



- Erakargarritasuna: Azken hamarkadan, Eibar ez du biztanlerik eta jarduera ekonomikorik erakarri. Beraz, beharrezkoa da enpresak erakartzea. Ekonomia errealeko eta produkzioko enpresak behar dira, ertainak eta txikiak, eta berrikuntzan oinarrituak. Ehun ekonomiko berria, iraunkorra, dibertsifikatua eta interes komunaren aldekoa sortu behar da.

- Identitatea: Eibarrek bere identitatea, pertenentzia-sentimendua eta berezitasunak sendotu behar ditu (bere gizarte- eta kultura-bioaniztasunari eutsi). Ariketa kolektibo horretatik abiatuta, marka-irudi bat landu behar da, gero eta lehiakortasun handiagoko egoera honetan Eibar posizionatze aldera.

## Gobernantza eta Balioak

- Koordinazioa eta lankidetza: Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eskaerei erantzuteko, koordinazio-ahalegin handia egin beharko da, maila guztietan: udal-arloen beraien artean; erakundeen artean; eta tokiko administrazioaren, herritarren eta sare ekonomikoaren artean. Eta hori guztia, egungo gizarte- eta ekonomia-sarearen bidez. Beharrezkoa izango da lan egiteko eta harremanak izateko modu berriak garatzea (enplegua-enpresa-administrazioa), elkarlanerako modu berriak (formalak, informalak, globalak) lantzea, lankidetza-mekanismoak garatzea, sareak eta itunak sortzea eta antolatzea, etab.

- Kultura-identitate propioa: gure kultura-ondarearekin lotutako partaidetza-dinamikak sustatzea –hala nola auzolana eta euskalgintza–, eta Eibarko komunitate-sentimendua indartzea, betiere, gizarte-kohesioa eta gizarte-ekintzailetza udalerriko balio nagusitzat hartuta (berdintasuna, immigrazioa, gazteria, gizarte-erantzukizuna, gizarte-ekonomia...).

- Parte-hartzea: Udalerriko biztanleen artean asoziazionismo-kultura handia dago, baina gainbehera etorri da apurka-apurka azken hamarkadetan. Gobernantza berria dela eta, eragileen eta, oro har, herritarren parte-hartze aktiboa indartu eta gehiago sustatu beharko da. Horretarako, legeek ematen dituzten aukera guztiak aztertu beharko dira, udal-politikei buruzko erabakiak hartzerakoan herritarren partaidetza-maila ahalik handiena izan dadin.



# 1. AMIA matrizea

## INDARRAK

- Identitate sendoa, euskararekin, ekintzailetzarekin, gizalegezko balioekin, arte plastikoekin, armagintzarekin eta kirolarekin lotua, besteak beste.
- Oraina aldatzeko borondatea.
- Eskualdeko zerbitzu-zentro gisa jarraitzea.
- Garraio publikoaren komunikazio eta konexio onak.
- Prestakuntza-eskaintza zabala (haur-hezkuntzatik unibertsitatera).
- Energia berriztagarriei buruzko unibertsitate-gradua, Estatuan aitzindaria.
- Elkartze-mugimendu euskaltzale garrantzitsua.
- Euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa: udal-ordenantza berria.
- UEUaren (Udako Euskal Unibertsitatea) egoitza.
- Berrikuntza- eta ekintzailetza-azpiegitura garrantzitsuak.
- Parke teknologiko bat.
- IK4 aliantzaren eta haren zentro nagusietako baten egoitza.
- Parte-hartzea Zientziaren eta Berrikuntzaren Hirien estatuko sarean.
- Ondo komunikatutako industria-lurzorua.
- Merkataritza-erakargarritasuneko eskaintza garrantzitsua.
- Errebal proiektua.
- Memoria historikoa balioesten aitzindariak.
- Azpiegituren eta kirol- eta kultura-ekipamenduen maila ona.
- Askotariko eta kalitatezko kultura-eskaintza. Coliseo Antzokia PLATEAn sartu izana.
- Kirol-jarduera handia herritarren artean.
- Barne-mugikortasun iraunkorra (joan-etorrien %78 oinez egiten da).
- Natura-esparruaren hurbiltasuna: Eibarko lurzoruaren %90 urbanizaezina da.
- Asoziazio-maila handia, udal-politiken orientazioan eragina izateko ahalmena duena.
- Gizarte-kohesio ona.
- Bizikidetza-giro ona.

## AHULEZIAK

- Biztanleria zaharragoa Euskadin batez beste baino.
- Hiri-konfigurazio korapilatsua.
- Produkzio-ahalmenaren galera estrukturala: per capita BPGa txikitzea.
- Enpresen deslokalizazioa. Mikroenpresak nagusi.
- Langabezia-tasa.
- Eskualdeko industria-sektorean lidergoa galtzea.
- Higiezin askok berritzea behar dute. Etxebizitzen zaharkitzea.
- Dentsitate handia eta harrotu beharra.
- Kalitatezko berdeguneen aisia-guneen eskasia.
- Aparkaleku-defizita zenbait lekutan, eta bigarren ilararen gehiegizko erabilera.
- Euskararen erabilera ez da nahi beste zabaltzen, eta Eibarko euskara galtzen ari da.
- Asistentzia-zerbitzuak behar dira adinekoentzat.
- Egoren uren kalitatea konpontzeke oraindik.

| AUKERAK | MEHATXUAK |
|---|---|
| ➢ Ekonomia pixkanaka hobetzeko aukerak.<br>➢ Leku handia behar ez duten enpresa-ekimenak sustatzen dituen garapen teknologikoa.<br>➢ Haize-energiaren fabrikazio-zentro bat martxan jartzea.<br>➢ Jardueren dibertsifikazioa bideratzen duen garapen teknologikoa.<br>➢ Jarduera hirien barnealderantz itzultzeko joera egiaztatua: jarduera-azpiegitura hibridoak.<br>➢ Industriari eta ekintzailetzari laguntzeko udal eta beste erakundeetako programak.<br>➢ Hiri-zaharberritze iraunkorra eta eraginkorra sustatzen duten politikak eta programak, Europakoak, Estatukoak edo EAEkoak.<br>➢ Energia-eraginkortasunean oinarritutako hiri-diseinuaren eredu berriak, hiri-eredu iraunkorretara igarotzeko.<br>➢ Hiri-zaharberritzearen arloko ekimen berritzaileak.<br>➢ Gizarte-berrikuntzako prozesuen sustapena, gizarte-eskaeren alternatiba gisa.<br>➢ Gizarte-zerbitzuen zorroaren onarpena.<br>➢ Herritarrek parte hartzeko prozesuak ugaritzea.<br>➢ Autobus geltoki berriaren inguruko partaidetza prozesua.<br>➢ Eibarko proiektu estrategiko berriaren diseinua.<br>➢ Hiriaren kanpo-proiekzioa, S.D. Eibarren kirol-proiektuan islatzen diren balioekin (ahalegina, seriotasuna, eraginkortasuna…) lotuta.<br>➢ Eibarko Hospital berriaren eraikuntza eta "Euskadiko Zainketa Aringarrien Plan 2016-2020" plangintzan sartzea.<br>➢ Errebalgo ekipamendu berria.<br>➢ Memoria historikoa berreskuratzea.<br>➢ NAN eta pasaporteak egiteko bulegoaren berreskurapenerako proiektua.<br>➢ Hiri-ingurune berrien aukerak (Matsaria) | ➢ Biztanleria metropoli-guneetan apurka pilatzea.<br>➢ Proiektu partekaturik eza Eibarko etorkizunerako.<br>➢ Aurrekontuak txikitzeko testuinguru batean, zerbitzu publikoen kalitateari eusteko ahalmena.<br>➢ Herritarrak euren erakundeetatik urruntzea.<br>➢ Gizarte-desberdintasuna handitzeko arriskua.<br>➢ Aztarna ekologikoa handitzeko erritmoak bere horretan jarraitzea.<br>➢ Eibarko identitatearekin lotutako balioak pixkanaka galtzea.<br>➢ Eragina galtzea. |








# Eibarko 2025erako formulazio estrategikoa

## 1. Sarrera

Eibarko 2025erako Plan Estrategikoak udalerriaren etorkizunari buruzko ikuspegi integral bat ematea du helburu. Horretarako, erronka estrategikoak, proiektuak eta jarduera-ildoak zehaztuko ditu, Eibarko bilakaerari eta egoerari buruzko azterketaren emaitzetan oinarrituta, eta eragile publiko eta pribatuekin partaidetza-egiaztapena eginda.

Erronka eta proiektu estrategikoak ikuspuntu errealista eta egingarri batetik aukeratuko dira. Udalerriaren 2025erako beharrei behar bezala erantzuteko Eibarko Udalak berak, beren kabuz edo beste eragile publiko eta pribatu batzuekin elkarlanean, garatu beharreko jarduera-ildoak zehaztuko dira.

Planak **4 erronkaren** inguruan dago antolatuta. Haiek dira erantzun beharrekoak, eta horretarako, **12 proiektu estrategiko** garatuko dira. Proiektu horiek azpi-proiektu eta jarduera-lerroetan banakatuko dira; Udalaren eta gainerako eragileen jarduera bideratuko dute.



## 2. Eibar 2025eko ikuspegia: Zer helburu izan behar ditu Eibarrek?

Ikuspegia Eibarrerako etorkizuneko hiri-ereduaren adierazpena da, eperik luzeenekoa (2025). Ikuspegia adierazpen orokorra da, eta Eibarko eragile publiko eta pribatuen epe luzeko oinarrizko asmoak bildu behar ditu. Norabide bat markatzen du, eta helburuak eta estrategiak, berriz, zehatzagoak izango dira. Asmoetan oinarritutako izaera orokor hori dela eta, Ikuspegiak –edo haren elementuren batek– aldi estrategiko bat baino gehiago iraun dezake.

**EIBAR 2025 IKUSPEGIA**



**3. Eibar 2025eko ikuspegia: Udalerri-eredu berria.-**Ikuspegiak, Eibarrerako etorkizuneko hiri-ereduaren adierazpen gisa, oinarrizko asmoak bildu eta lan-norabide egituratu bat adierazten du, lau alderdi hauek ardatz direla:

**1. Igarotza ekologikoan dagoen hiri bat:**

- ✓ Esparru artifizialen erabilera sustatzen duena, kanpoalderantz hazteko proposamenen aurrean.
- ✓ Naturako eta ondareko egungo guneak eta baliabideak balioesten dituena.
- ✓ Irisgarritasun unibertsala, hiri-antolaketa, mugikortasun iraunkorra, eta dagoena zaharberritzeko eta balioesteko politikak barne hartzen dituena.
- ✓ Bere energia-eredua aldatzearen eta karbono gutxiko ekonomia baterantz aurreratzearen alde egiten duena.
- ✓ Kontsumo energetikoa murriztu eta energi berriztagarrien apustua egiten duena.

**2. Jarduera ekonomikoa egoera teknologiko berrian birkokatu duen hiria:**

- ✓ Iraunkorra, dibertsifikatua eta ezagutzan oinarritua den sare ekonomiko bat oinarri duena.
- ✓ Erreferentziazko prestakuntza- eta ikerketa-zentroak Eibarko sare ekonomiko eta profesionaletik hurbil dituena.
- ✓ Tamaina ertaineko eta eduki teknologiko handiagoko enpresak erakartzen dituena.
- ✓ Ikuspegi estrategiko adostua eta berritzailea duen merkataritza-sektorea duena.
- ✓ Ekintzailetzaren, suspertzen ari diren sektore ekonomikoen, gizarte-ekonomiaren, komunitatearen elkarlanaren, eta eragile publikoen eta pribatuen arteko elkarlanaren alde egiten duena.

**3. Pertsonentzako udalerria:**

- ✓ Garapen inklusiboa, lagunkoia, orekatua, iraunkorra, kohesionatua eta berritzailea duena.
- ✓ Erabakiak hartzean pertsonak aintzat hartzen dituena.
- ✓ Gazteentzat erakargarria.
- ✓ Biztanleriaren zahartzaro prozesua kontutan hartzen duena.
- ✓ Eibarko kultura-identitatea sustatzen duena, hala nola euskara eta kultura- eta gizarte-ondarea.
- ✓ Pertenentzia-sentimendua indartzen duena.
- ✓ Herritarren heziketa eta gizabidezko balioak sustatu, eta kultura berrietan txertatzen dituena.

**4. Gobernantza-eredu berria duen hiria:**

- ✓ Zeharkakoa eta sentsibilitate politiko desberdinen arteko akordio politiko zabaletan oinarritua.
- ✓ Herritarrak ekintzaileak izatea eta erabaki estrategikoetan parte hartzea nahi duena.
- ✓ Udal-kudeaketan, gardentasuna eta bikaintasuna lehenesten dituena.
- ✓ Maila guztietan lankidetza eta koordinazioa sustatzen dituena.

## 4. Eibar 2025eko ikuspegia: Hedapenerako alderdiak

Eibarko etorkizunerako zehaztutako lau erronkak lau dimentsio horien –*Igarotza ekologikoa, Ekonomia birkokatzen, Pertsonak eta Gobernantza aurreratua*– egituratuko dira, eta haietan oinarrituta, hedapen estrategikoa diseinatu da.

*2025ean honelakoak izango gara*

**Pertsonentzako hiri bat,**
**udalerriko interes eta behar guztiei erantzuten diena,**
**enpresa- eta gizarte-ekimen eta -proiektu berritzaileak ezartzen eta garatzen laguntzen duena,**
**pertsonak eta natura- nahiz ondare-baliabideak aintzat hartzen dituen beste hirigintza baten bidez,**
**ingurune ireki, berdintasunezko, lagunkoi eta integratzaile batean,**
**eta akordio politiko zabaletan, parte-hartzean, gardentasunean eta eskualdeko ikuspegian oinarritutako gobernantza-eredua duena.**




| DIMENTSIOAK | ERRONKA ESTRATEGIKOAK | HIRI BALIOAK |
|---|---|---|
| E-L-B<br>EKONOMIA<br>Lehiakortasuna<br>Berrikuntza | *Bere jarduera ekonomikoak egoera teknologiko berrian **birkokatzen** dituen hiri bat* | Ekintzailea<br>Irekia<br>Laguntzailea |
| B-E-I<br>HIRI BERRITZEA<br>Efizientzia<br>Iraunkortasuna | ***Igarotza** ekologikoan dagoen hiri bat* | Efizientea<br>Iraunkorra<br>Hibridoa |
| P-T-O<br>PERTSONAK<br>Talentua<br>Ongizatea | ***Pertsonentzako** hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia* | Anitza<br>Integratzailea<br>Solidarioa<br>Erakargarria |
| GOBERNANTZA | *Kudeaketa publiko **aurreratua*** | Gardena<br>Parte-hartzailea |



# Proiektu Estrategikoak

# 3. Proiektu estrategikoak







***Igarotza*** *ekologikoan dagoen hiri bat*

*Bere jarduera ekonomikoak egoera teknologiko berrian* ***birkokatzen*** *dituen hiri bat*

***Pertsonentzako*** *hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia*

**1. HIRI BERRIKUNTZARAKO LABORATEGIA**

**2. MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN SEGURU ETA IRAUNKORRA**

**3. TRANTSIZIO EKOLOGIKOA**

**4. ENPRESAK SENDOTZEA**

**5. ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZAREN HIRIA**

**6. ESKUALDEKO EKOSISTEMA**

**7. GURE NORTASUNA**

**8. BIZI KALITATEA**

**9. GURE NAGUSIAK**

**10. GURE GAZTEAK**

**11. GURE UMEAK**

*Kudeaketa publiko* ***aurreratua***

**12. GOBERNANTZA EREDU BERRIA**

| 3. ERRONKA | Hiri-eredu berriaren IKUSPEGIA | PROIEKTU ESTRATEGIKOAK |
|---|---|---|
| *Pertso-nentzako hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia* | **Pertsonentzako udalerri bat:**<br><br>✓ Garapen inklusiboa, lagunkoia, orekatua, iraunkorra, kohesionatua eta berritzailea duena.<br>✓ Erabakiak hartzean pertsonak aintzat hartzen dituena.<br>✓ Gazteentzat erakargarria.<br>✓ Biztanleriaren zahartzaro prozesua kontutan hartzen duena.<br>✓ Eibarko **kultura-identitatea** sustatzen duena, hala nola euskara eta kultura- eta gizarte-ondarea.<br>✓ **Pertenentzia-sentimendua** indartzen duena.<br>✓ Herritarren heziketa eta gizabidezko balioak sustatu, eta kultura berrietan txertatzen dituena. | **7. GURE NORTASUNA: Identitate-faktoreak indartzea**<br>7.1. Euskara politika guztietan sustatzeko akordio bat sinatzea.<br>7.2. Ego-Ibarra proiektua zabaltzea eta bideratzea.<br>7.3. Hiri-markari buruzko plan bat diseinatzea.<br>7.4. Kulturarteko hiriaren estrategia finkatzea, aniztasuna onartuz, bertako eta atzerriko pertsonen arteko harremanak sustatuz, partaidetza politiko eta soziala sustatuz, eta diskriminazioa prebenituz.<br>7.5. Botere-oreka handiagoa lortzea, gizonen eta emakumeen arteko harreman pertsonal eta sozialetan.<br>**8. BIZI KALITATEA: Jarduerak eta ongizatea**<br>8.1. Politika guztietan osasunerako tokiko plan bat egitea.<br>8.2. Kultura-jarduerak mantentzea, hobetzea eta gehiago eskaini.<br>8.3. Kirol-jarduerak mantentzea, hobetzea eta gehiago eskaini.<br>**9. GURE NAGUSIAK: Eibar, hiri lagunkoia adinekoekin**<br>9.1. Asistentzia-zerbitzuak hobetzea.<br>9.2. Barruti soziosanitario bat sustatzea, eta osasunaren eta gizarte-zerbitzuen artean koordinatutako plan bat egitea.<br>9.3. Adinekoekin lagunkoia den hiri baterako plana egitea (Euskadi lagunkoia) eta Euskadiko sareari atxikitzea.<br>9.4. Auzo bakoitzean esparru soziokomunitarioak sortzea.<br>**10. GURE GAZTEAK: Eibar, gazteentzat erakargarria**<br>10.1. Talentu gaztea atxikitzeko plan bat egitea.<br>10.2. Gazte enplegurako plan bat egitea.<br>10.3. Gazteen beharren araberako etxebizitza-eskaintza garatzea.<br>**11. GURE UMEAK: Eibar, haurtzaroarekiko hiri lagunkoia**<br>11.1. Haur eta nerabeentzako Udal Plan bat egitea.<br>11.2. Heziketa eta aisialdirako zerbitzuak hobetu eta berriak sortu. |

| 1. ERRONKA | Hiri-eredu berriaren IKUSPEGIA | PROIEKTU ESTRATEGIKOAK |
|---|---|---|
| *Igarotza ekologikoan dagoen hiri bat* | **Igarotza ekologikoan dagoen hiri bat:**<br>✓ Esparru artifizialen erabilera sustatzen duena, kanpoalderantz hazteko proposamenen aurrean.<br>✓ Naturako eta ondareko egungo guneak eta baliabideak balioesten dituena.<br>✓ Irisgarritasun unibertsala, hiri-antolaketa, mugikortasun iraunkorra, eta dagoena zaharberritzeko eta balioesteko politikak barne hartzen dituena.<br>✓ Bere energia-eredua aldatzearen eta karbono gutxiko ekonomia baterantz aurreratzearen alde egiten duena.<br>✓ Kontsumo energetikoa murriztu eta energi berriztagarrien apustua egiten duena. | **1. Hiri-berrikuntzarako laborategia**<br>1.1. Hiri gunea berritzea.<br>1.2. Industria-lurzorua birsortzeko proiektuak.<br>1.3. Etxebizitza-parkea berritzea, iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuta.<br>**2. Mugikortasun eta irisgarritasun segurua eta iraunkorra**<br>2.1. Erdigunean oinezkoen mugikortasuna sustatzea, eta auzoen eta erdigunearen arteko konexioa hobetzea.<br>2.2. Zirkulazioaren kudeaketa hobetzea.<br>2.3. Erdiguneko aparkalekuen kudeaketa hobetzea.<br>**3. Trantsizio ekologikoa**<br>3.1. Energia-eraginkortasunerako plan integral bat egitea.<br>3.2. Energia berriztagarriak aktiboki sustatzea.<br>3.3. Karbono-aztarna txikitzeko plan bat egitea.<br>3.4. Natura-ingurunea balioestea: Arraterako plan integral bat egitea. |

| 2. ERRONKA | Hiri-eredu berriaren IKUSPEGIA | PROIEKTU ESTRATEGIKOAK |
|---|---|---|
| Bere jarduera ekonomi-koak egoera teknologiko berrian **birkokatzen** dituen hiri bat | **Jarduera ekonomikoa egoera teknologiko berrian birkokatu duen hiria:**<br><br>✓ Iraunkorra, **dibertsifikatua eta ezagutzan oinarritua** den sare ekonomiko bat oinarri duena.<br>✓ Erreferentziazko prestakuntza- eta ikerketa-zentroak Eibarko sare ekonomiko eta profesionaletik hurbil dituena.<br>✓ Tamaina ertaineko eta eduki teknologiko handiagoko enpresak erakartzen dituena.<br>✓ Ikuspegi estrategiko adostua eta berritzailea duen merkataritza-sektorea duena.<br>✓ Ekintzailetzaren, suspertzen ari diren sektore ekonomikoen, gizarte-ekonomiaren, komunitatearen elkarlanaren, eta eragile publikoen eta pribatuen arteko elkarlanaren alde egiten duena. | **4. Jarduera ekonomikoa sendotzea**<br>4.1. Sustapen ekonomikoko arloa indartzea, eta gizarte- eta komunitate-lankidetza eta eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetza sustatzea: eragileen arteko koordinazioa, ekonomia dinamizatzeko.<br>4.2. Eibarrerako egokienak diren sektore estrategikoen/ekonomia berriaren/ekintzailetzaren aldeko apustua (leku/teknologiaren eta ezagutzaren erabilera txikia).<br>4.3. **Industria tradizionalari eraldatzen** laguntzea: enpresari txikia ahalduntzeko programa.<br>4.4. **Merkataritza eta Ostalaritzako** Plan Estrategikoa zabaltzea *(PERCO proposamenak txertatzea).*<br>4.5. Debemenekin elkarlanean **lehen sektoreari** laguntzeko plan espezifiko bat martxan jartzea.<br>4.6. **Immigranteen negozioak** ekonomia formalean sar daitezen sustatzea.<br>**5. Zientziaren, Berrikuntzaren eta Ezagutzaren Hiria**<br>5.1. IK4, Armagintza, EHU eta BIC Berrilanen arteko networkinga sendotzea: koordinazio-programa espezifiko bat sortzea eta koordinazioaz arduratuko den pertsona izendatzea.<br>5.2. Negozio-plana berritzea, Polo Teknologikoaren garapena bideratzeko.<br>**6. Eskualdeko ekosistema**<br>6.1. DEBEGESA Eskualdeko Agentziaren jarduerak indartzea.<br>6.2. Eskualdeko udalerriekin sinergiak bilatzea. |

| 4. ERRONKA | Hiri-eredu berriaren IKUSPEGIA | PROIEKTU ESTRATEGIKOAK |
|---|---|---|
| *Kudeaketa publiko aurreratua* | **Gobernantza-eredu berria duen hiria:**<br>✓ Zeharkakoa eta sentsibilitate politiko desberdinen arteko akordio politiko zabaletan oinarritua.<br>✓ Herritarrak ekintzaileak izatea eta erabaki estrategikoetan parte hartzea nahi duena.<br>✓ Udal-kudeaketan, gardentasuna eta bikaintasuna lehenesten dituena.<br>✓ Maila guztietan lankidetza eta koordinazioa sustatzen dituena. | **12. Gobernantza-eredua: Gardentasuna, eraginkortasuna eta parte-hartzea**<br>12.1. Proiektu estrategikoak aintzat hartzeko itun politiko bat adostea.<br>12.2. Udal-kudeaketako eredu berri bat martxan jartzea.<br>12.3. Partaidetza-, gardentasun- eta komunikazio-politika bat sustatzea. |



# Hedapen estrategikoa

# 4. Hedapen estrategikoa

| 1. ERRONKA *Igarotza ekologikoan dagoen hiri bat* | | | |
|---|---|---|---|
| **1. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***Hiri-berrikuntzarako laborategia*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | • Hiria berritzeko eta birsortzeko politikan ikuspegi integrala izatea, esku hartzeko lehentasunak ezartzeko.<br>• Auzoen zaharberritze integratua lehenestea, batez ere hiriko ekialdea: Barrena-Urkizu-Arragüeta eta Txonta.<br>• Etxebizitza-parkearen benetako egoerari buruzko ezagutza hobetzea.<br>• Biztanleriari laguntzei eta tresnei buruzko informazio eta aholkularitza hobea ematea, eta prestakuntza eta RHRUaren politika (Birgaitz eta Hiri-zaharberritze) berrian parte hartzen duten eragile guztien parte-hartzea sustatuz.<br>• Laguntza guztiak eta haiek ematen dituzten administrazioen kudeaketa koordinatzea eta bateragarri egitea.<br>• Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek hiri-birsorkuntzan parte har dezaten saiatzea. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | • Lurralde-antolamendu adimentsua, erabilerak (lana, aisia, etxebizitza) konbinatzea eta lurzoruaren kontsumoa hobetzea sustatzen duena, lurzoruaren berrerabilera eta birsorkuntza lehenetsiz.<br>• Hiri-ehun birsortua, horri esker enpresa-eredu iraunkorrago bat, etxebizitza-parke eraginkorragoa eta, herritarren harremanetarako gune gisa, kalitatezko esparru publikoa sortzeko. |

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| Azpiproiektuak | Jarduera-lerroak | Proposamena | Epea | Eragile arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| 1.1. Hiri gunea berritzea | 1.1.1. Errebal Proiektua gauzatzea | Egindako hausnarketa- eta partaidetza-prozesu garrantzitsuaren ondoren, proiektu erakargarria eta funtzioaniztuna zehaztu da, eta hurrengo aldi estrategikoan, lehentasunez gauzatu beharreko proiektuetako bat izango da. | 2016<br>2018 | - Udala<br>- Eusko Jaurlaritza |
| | 1.1.2. Hirian jarduteko programa bat egitea, generoaren aldagaia kontuan hartuta. | Eibarko etorkizuna generoaren ikuspegitik aztertu behar da. Besteak beste, alderdi hauek aztertu behar dira: mugikortasuna, segurtasuna, ekipamendu publikoak, esparru publikoan zainketarako dauden erraztasunak, kolektiboen arteko bizikidetza eta haurren autonomia. Alderdi horiek guztiek emakumeen zein gizonen bizimoduan dute eragina, baita gure herriko bizikidetza-ereduan ere. | 2016<br>2017 | - Udala<br>- Berdintasun Mahaia |
| | 1.1.3. Esparru publikoak hobetzeko plan bat egitea (mugikortasun-plana). | Aurretiko diagnostikoa egiteko bileretan eta mugikortasun-planaren proposamenetan, Eibarko esparru publikoa hobetu beharra dagoela ematen da aditzera. Erdigunean, hiri-altzarien hornidura hobetu behar da, eta auzoetan, berriz, esparruak prestatu. Joko-gune estaliak aldarrikatzen dira hiriaren toki desberdinetan. Mugikortasun Planean, jarduketa horiei honela esaten zaie: “Hiri-bihotzen plana” eta “Hiri-akupunturako plana”. | Urte anitzekoa | - Udala |

| **1. ERRONKA** *Igarotza ekologikoan dagoen hiri bat* | | | |
|---|---|---|---|
| **1. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***Hiri-berrikuntzarako laborategia*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | • Hiria berritzeko eta birsortzeko politikan ikuspegi integrala izatea, esku hartzeko lehentasunak ezartzeko.<br>• Auzoen zaharberritze integratua lehenestea, batez ere hiriko ekialdea: Matsaria, Barrena-Urkizu-Arragüeta eta Txonta.<br>• Etxebizitza-parkearen benetako egoerari buruzko ezagutza hobetzea.<br>• Biztanleriari laguntzei eta tresnei buruzko informazio eta aholkularitza hobea ematea, eta prestakuntza eta RHRUaren politika (Birgaitz eta Hiri-zaharberritze) berrian parte hartzen duten eragile guztien parte-hartzea sustatuz.<br>• Laguntza guztiak eta haiek ematen dituzten administrazioen kudeaketa koordinatzea eta bateragarri egitea.<br>• Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek hiri-birsorkuntzan parte har dezaten saiatzea. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | • Lurralde-antolamendu adimentsua, erabilerak (lana, aisia, etxebizitza) konbinatzea eta lurzoruaren kontsumoa hobetzea sustatzen duena, lurzoruaren berrerabilera eta birsorkuntza lehenetsiz.<br>• Hiri-ehun birsortua, horri esker enpresa-eredu iraunkorrago bat, etxebizitza-parke eraginkorragoa eta, herritarren harremanetarako gune gisa, kalitatezko esparru publikoa sortzeko. |

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| Azpiproiektuak | Jarduera-lerroak | Proposamena | Epea | Eragile arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| 1.2. Industria-lurzorua birsortzeko proiektuak | 1.2.1. Matsaria berritzeko plana. | Matsariak, iraganean industria-izaera handia izan zuen auzoak, ingurunea eta pertsonak errespetatzen duen birsorkuntzaren printzipioak aplikatzearen eredua izan behar du. Besteak beste, honako hauek hartu behar dira kontuan Matxariaren etorkizunean: ibaia osorik edo partzialki berreskuratzea, egoera onean dauden industria-eraikinak aprobetxatzea edo berrerabiltzea eta oinez edo bizikletaz egiteko bideak hobetzea. Industria-tailer zaharrak eraisteko joera badago ere, ezinbestekoa da, industria-eraikinetan esku hartzerakoan, ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta kulturari eta memoriari eustea, etorkizunean Matxaria leku anonimoa eta memoriarik gabea izan ez dadin. Beraz, auzo hori hobetzeko, zaharberritu behar den multzoaren beraren izaera kulturala eta historikoa aintzat hartzeko oinarrizko irizpideari jarraitu behar zaio. | 2016<br>2019 | - Udala<br>- Eusko Jaurlaritza<br>- Aldundia |
| | 1.2.2. Asua Errekaren ingurua hobetzea | Jabetzarekin akordioak bilatu beharra dago, Asua Errekaren ingurunea hobetzeko. Gainera, han erabilera mistoak egiteko aukerak aztertu behar dira. | 2016<br>2017 | - Udala |
| | 1.2.3. Otaola Hiribidean hirugarren sektoreko merkataritza indartu baita zerbitzu teknologikoak edota industria biguna | Udalerrian sartzeko bide horretan merkataritza-erabilera nagusitzen ari denez, erabilera hori era planifikatu batean aztertzea eta finkatzea proposatzen da, kontutan izanda erabilera horrek ez lukeela zaildu behar gaur egun dauden jarduerei ezta etorkizunean lerroan proposatzen diren jarduera ekonomikoei ere ez. | Jarraitua | - Udala |

| 1. ERRONKA *Igarotza ekologikoan dagoen hiri bat* | | | |
|---|---|---|---|
| **1. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***Hiri-berrikuntzarako laborategia*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | • Hiria berritzeko eta birsortzeko politikan ikuspegi integrala izatea, esku hartzeko lehentasunak ezartzeko.<br>• Auzoen zaharberritze integratua lehenestea, batez ere hiriko ekialdea: Barrena-Urkizu-Arragüeta eta Txonta.<br>• Etxebizitza-parkearen benetako egoerari buruzko ezagutza hobetzea.<br>• Biztanleriari laguntzei eta tresnei buruzko informazio eta aholkularitza hobea ematea, eta prestakuntza eta RHRUaren politika (Birgaitz eta Hiri-zaharberritze) berrian parte hartzen duten eragile guztien parte-hartzea sustatuz.<br>• Laguntza guztiak eta haiek ematen dituzten administrazioen kudeaketa koordinatzea eta bateragarri egitea.<br>• Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek hiri-birsorkuntzan parte har dezaten saiatzea. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | • Lurralde-antolamendu adimentsua, erabilerak (lana, aisia, etxebizitza) konbinatzea eta lurzoruaren kontsumoa hobetzea sustatzen duena, lurzoruaren berrerabilera eta birsorkuntza lehenetsiz.<br>• Hiri-ehun birsortua, horri esker enpresa-eredu iraunkorrago bat, etxebizitza-parke eraginkorragoa eta, herritarren harremanetarako gune gisa, kalitatezko esparru publikoa sortzeko. |

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| Azpiproiektuak | Jarduera-lerroak | Proposamena | Epea | Eragile arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| 1.3. Etxebizitza-parkea berritzea, iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuta | 1.3.1. Auzoen zaharberritze integralerako programa bat egitea | Hiria berritzeko eta birsortzeko politikak ikuspegi integratua izan behar du Eibarren, lagun-egite soziala ikuspuntu tekniko, sozial eta komunitariotik aintzat hartzeko. Horrez gain, esku-hartzeen emaitza bermatzeko behar ziren zehar-ekintza guztiak egin behar dira, Mogelen hasitako lanaren ildoari jarraituz. Halaber, beharrezkoa izango da lehentasunezko arloak mugatzea, auzo bakoitzaren berezitasunak eta hiri-tipologia bakoitza kontuan hartuta. Lehentasunezko guneak identifikatzen dira hiriko ekialdean: Barrena, Urkizu-Arragüeta, Txonta eta Errekatxu. | 2016<br>2017 | - Udala<br>- Eusko Jaurlaritza |
| | 1.3.2. Eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetza-plan bat martxan jartzea, hiria berritzeko programa finantzatzeko | Hona hemen helburuak:<br>• Elementu komunetan esku hartzea, batik bat, eta sistema teknikoetan esku hartzea.<br>• Elementu komunetan esku hartzearekin batera, irisgarritasun-baldintzak hobetzea. Jarduketak erkideen akordioaren eta esparruaren ahultasunaren arabera lehenetsiko dira.<br>• Energia-eraginkortasuna: eraikitako ondarearen energia-eraginkortasunaren aitzakian, eraikinen zaharberritzea sustatzeko eta hari eta interes politiko eta soziala emateko aukera ona dago, betiere, zaharberritze-behar klasikoagoak edo lehen belaunaldikoak ahaztu gabe.<br>• Zaharberritzeko esku-hartzeen kalitate-profilak eta haren azterketak ezartzea, gutxieneko baldintzak hobetuz. | 2016<br>2018 | - Udala<br>- Eusko Jaurlaritza<br>- Finantza-erakundeak<br>- Eraikuntza-enpresak |

| 1. ERRONKA *Igarotza ekologikoan dagoen hiri bat* | | | |
|---|---|---|---|
| **1. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***Hiri-berrikuntzarako laborategia*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | • Hiria berritzeko eta birsortzeko politikan ikuspegi integrala izatea, esku hartzeko lehentasunak ezartzeko.<br>• Auzoen zaharberritze integratua lehenestea, batez ere hiriko ekialdea: Barrena-Urkizu-Arragüeta eta Txonta.<br>• Etxebizitza-parkearen benetako egoerari buruzko ezagutza hobetzea.<br>• Biztanleriari laguntzei eta tresnei buruzko informazio eta aholkularitza hobea ematea, eta prestakuntza eta RHRUaren politika (Birgaitz eta Hiri-zaharberritze) berrian parte hartzen duten eragile guztien parte-hartzea sustatuz.<br>• Laguntza guztiak eta haiek ematen dituzten administrazioen kudeaketa koordinatzea eta bateragarri egitea.<br>• Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek hiri-birsorkuntzan parte har dezaten saiatzea. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | • Lurralde-antolamendu adimentsua, erabilerak (lana, aisia, etxebizitza) konbinatzea eta lurzoruaren kontsumoa hobetzea sustatzen duena, lurzoruaren berrerabilera eta birsorkuntza lehenetsiz.<br>• Hiri-ehun birsortua, horri esker enpresa-eredu iraunkorrago bat, etxebizitza-parke eraginkorragoa eta, herritarren harremanetarako gune gisa, kalitatezko esparru publikoa sortzeko. |

| PROIEKTUAREN HEDAPENA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Azpiproiektuak** | **Jarduera-lerroak** | **Proposamena** | **Epea** | **Eragile arduradunak** |
| 1.3. Etxebizitza-parkea berritzea, iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuta | 1.3.3. Fatxadak zaharberritzeko eta irisgarritasuna hobetzeko pizgarriak gehitzea | Oraindik ere, etxebizitza parkea birsortzeko eta zaharberritzeko politika ez da erakargarria sustatzaile pribatuentzat (errentagarritasun txikia hartuko dutela uste baitute), behar asko eta garestiak badaude ere. Gainera, badaude herritarrek eta jabekideen erkidegoek zaharberritzeari ekiteko beste zailtasun batzuk: etxebizitzetan edo eraikinetan zaharberritze handiak egiteko kreditu-murrizketak, jabekideen erkidegoek adostasuna lortzeko zailtasunak, eta zaharberritzeko dauden laguntzen eta haiek kudeatzen dituzten administrazioen edo organismoen sakabanatzea. Dena den, hiri-zaharberritzea eta -birsorkuntza herrialdea egituratzeko politikatzat hartuko da, eta garrantzi sozial eta ekonomiko duela, bizi-kalitatea hobetzen duela eta hiri-ingurunearen iraunkortasuna bideratzen duela onartuko da; horren ondorioz, baliabide ekonomikoen eta kudeaketa-baliabideen horniketa handitu egingo da, eta horri esker, jarduketa eraginkorra egin eta, denborak aurrera egin ahala, emaitza adierazgarriak lortuko dira. Jarduketa horiek epe ertainean proposatu behar dira. Izan ere, kontuan izan behar da, baliabide ekonomiko asko izanda ere, emaitzak lortzeko denbora behar dela. | Jarraitua | - Udala<br>- Herritarrak<br>- Debegesa |
| | 1.3.4. Etxebizitzen alokairua indartu | Eusko Jaurlaritzako indarrean dagoen Etxebizitza plana alokairuaren eta birgaitzearen alde egiten du, horrexegatik Eibarrerako horrelako proposamena egiten da ere. Utzik dauden etxebizitzak alokairuan merkaturatzeko animatu eta agian lagundu egin beharko litzateke jabeei, baita Egazelai proiektua bezala gehiago sortu ere. | Jarraitua | - Udala |

| 1. ERRONKA *Igarotza ekologikoan dagoen hiri bat* | | | |
|---|---|---|---|
| **2. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***Mugikortasun eta irisgarritasun segurua eta iraunkorra*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | Esparru publikoen erakargarritasuna handitzea eta auzoetan esparru berriak sortzea. Oinezkoentzako komunikazioa hobetzea, auzoen artean eta, bereziki, erdigunean, Eibarren oinezkoen mugikortasuna babestu eta sustatu beharreko aktiborik garrantzitsuena dela onartuta. Ibilgailuek erabili beharreko esparrua berrorekatzea, beharrezkoa den funtzionaltasuna eten gabe. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Hiri abegitsuagoa, ibilerrazagoa eta erosoagoa. Motorrik gabeko joan-etorriak sustatzen dituen mugikortasunean oinarrituta. Zirkulazioaren eta aparkalekuen kudeaketa orekatuago batekin, lortu nahi den hiri-ereduaren arabera. |

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| 7.2. Ego-Ibarra proiektua zabaltzea eta bideratzea | 7.2.1. Batzordearen lanarekin jarraitzea | Eibarren, proiektu inplizitu bat dago, oso nabarmena: industria-ondarearen antolaketa, udalerrian duen kokapena. Ia naturaltasunez, oso kultura-paisaia koherentea sumatzen da. Eibar tailer-hiri bat da. Lurraldearen pedagogia egin behar da. Lehentasunezkoa da eibartarrek lekua bere egitea. Ez badute beretzat hartzen, kultura-paisaia ez da inoiz existituko. Horretarako lekuaren irudiaz kontzientziatzeko eta indartzeko askotariko ekintzak egin daitezke: argazki-erakusketak, fabriken memoriari buruzko dokumentalak, esku-hartze artistikoak… | Jarraitua | - Udala<br>- Ego-Ibarra batzordea |
| 7.3. Hiri-markari buruzko plan bat diseinatzea | 7.3.1. Hiri-markari buruzko plan bat egitea | Eibar "Lab" kontzeptuari lotzea; alegia, enpresa-proiektu berritzaileak martxan jartzeko aukera ematen duen lekuari.<br>Eibarren kanpo-irudia lantzea, elementu positiboak nabarmenduta: izaera, jarrera eta gaitasunak, abegitsua, kulturartekotasuna, ekintzailetasuna, iraunkortasuna, etab. | 2017 | - Udala |

| 3. ERRONKA *Pertsonentzako hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia* | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **7. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***GURE NORTASUNA: Identitate-faktoreak indartzea*** | | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | Kulturaren, kultura-identitatearen, ondarearen eta komunitate-garapenaren arteko erlazioa ez da berria. Eibarren kasuan, komunitateko kideek beren esperientziak sozializatu eta ezagutza eta identitate kulturala sendotzeko ekimenak egin ditzaketen gune guztiak dinamizatzea proposatzen da. Izan ere, gune horiei esker, udalerriko pertenentzia-sentimendua kultura-ondareari buruzko ezagutza indartu egiten da, eta horrenbestez, gizarte-unitate horrek, iragana oinarri hartuta, etorkizuneko proiektu bat egin dezake. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Kultura-identitatea indartzea, sustraitze- eta pertenentzia-sentimenduak finkatuz, eta ildo horretan, komunitate-garapenerako herri-partaidetza sendotuz. | |
| **PROIEKTUAREN HEDAPENA** | | | | |
| **Azpiproiektuak** | **Jarduera-lerroak** | **Proposamena** | **Epea** | **Eragile arduradunak** |
| 7.4. Kulturarteko hiriaren estrategia finkatzea | 7.4.1. 2012-2016rako Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Tokiko Plana hedatzea | Plana hedapenaren azken txanpan dago. Beharrezkoa da plana burutzea, ebaluazioa egiteko eta ondorioak ateratzeko, eta horri esker, III. Plana egiterakoan zer hobetu jakite aldera. | 2017 | - Udala<br>- Elkarteak |
| 7.5. Botere-oreka handiagoa lortzea, gizonen eta emakumeen arteko harreman pertsonal eta sozialetan | 7.5.1. Berdintasuna politika guztian txertatzea: IV. Plana | Eibarko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana 2014an amaitu zen. Plan horren lorpen eta gabeziak ebaluatu behar dira, IV. Plana aurrerapausoa eta hobe izan dadin. Berdintasuna politika guztietan txertatzea da beharrik premiatsuena, horrekiko dagoen sentikortasun-faltak agerian uzten duenez. Udalak egin duen "Emakumea eta Kirolaren" diagnostikoa erabili, ekintza zehatzak eta plan espezifikoa egiteko. | 2016 | - Udala<br>- Elkarteak |
| | 7.5.2. Berdintasun-politikaren kudeaketa-egitura finkatzea eta sendotzea | Esan daiteke berdintasunaren arloan Eibarko Udalak lehen zikloa burutu duela. Orain, beste etapa baten hasieran dago, eta horretan, egiturak eta ekipamenduak finkatu eta zabaldu beharra dago. Emakumearen Etxea da adibiderik nabarmenena: urte gutxian, baliabide publikoa ez izatetik txiki geratzera igaro da. | Aldian zehar | - Udala |

| 3. ERRONKA *Pertsonentzako hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia* | | | |
|---|---|---|---|
| **8. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***BIZI KALITATEA: Jarduerak eta ongizatea*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | Biztanleria zahartzea munduko gizarterik aurreratuenetako errealitate bat da, eta bereziki nabarmena da Eibarren. Horren ondorioz, ongizate-estatuaren ikuskera berrikusten ari dira gizarte horietan.<br>Bizi-kalitatea diziplina anitzeko ikuspegi batetik mantendu eta hobetu behar da. Hona hemen diziplina horiek: osasuna (mediku- eta asistentzia-alderdietatik), elikadura, ohiturak eta bizitza-estiloak (etxebizitza, aisia, etab.). | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Eibartarrek ongizate- eta osasun-maila hobetzea, gaur egungo gizartearen alderdirik esanguratsuenetako bati erreparatuz; hau da, biztanleararen zahartzeari. Hiriak fenomeno horretarako prestatu behar du. |

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| Azpiproiektuak | Jarduera-lerroak | Proposamena | Epea | Eragile arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| 8.1. Politika guztietan osasunerako tokiko plan bat egitea | 8.1.1. Osasun-plana Eibarrera egokitzea | Iaz, 2020rako Osasun Plana onartu zen EAEn. Proposamen honetan, plan horren "irakurketa" bat egin nahi da, Eibarko egoera kontuan hartuta. Horren helburua ekintza-plan espezifiko bat egitea da, eta horren bidez, osasun-arloko jarduketak bultzatzea, prebentzio-estilo bat sustatzeko, etxez etxeko arreta ahalbidetzeko eta osasunaren zenbait alderi lantzeko, osasun-zentroen laguntzarekin baina osasun-zentroetatik kanpo. | zg | - Udala<br>- Osasun eta Kontsumo Saila<br>- Debabarrena ESI<br>- Nagusien Kontsailua |
| 8.2. Kultura-jarduerak mantentzea eta hobetzea | 8.2.1. Kultura-jarduerako esparrua 2015-2019 | Ezin da zalantzan jarri kultura-zerbitzuak oso garrantzitsuak direla Eibarko biztanleria mantentzeko eta garatzeko; hori dela eta, beharrezkotzat hartzen da helburu hori nola edo hala errazten duten kultura-jarduera guztiak egitea. Datorren legealdian Eibarren Kultura Jarduerako Esparru bat egitea proposatzen da; izan ere, ordurako, ekipamendu eta azpiegitura berriak prest egongo dira, ustez: Errebal eta Matsaria. Ekipamendu eta azpiegitura horiei esker, Eibarko kultura-sorkuntzaren dinamismoa handitu egin daiteke.. Ildo honetan Kultur Mahaiaren sorrera urrats interesgarria da. | 2015<br>2016 | - Udala<br>- Elkarteak<br>- Artistak |
| 8.3. Kirol-jarduerak mantentzea eta hobetzea | 8.3.1. Jarduera fisikoa, kirola eta aisia osasungarria sustatzeko tokiko plan bat egitea | Horrelako planek jarrera sedentarioei aurre egitea dute helburu. Plan horren arabera, 2025erako Eibarko herritar gehienek jakingo dute zein diren jarduera fisikoko oinarrizko gomendioak, (ibilbide osasuntsuak) eta aintzat hartuko dituzte. Beraz, epe luzera jarduera fisikoaren ondoriozko beste onura batzuk lor ditzakete: osasuna hobetzea; ingurumenak hobera egitea; gehiago aurreztea, osasun-gastuan; enpleguak gora egitea, aisia-, osasun- eta kirol-sektorean; etab. Plan hori Osasun Planarekin koordinatu beharko litzateke. | zg | - Udala<br>- Kirol-elkarteak<br>- Ikastetxeak<br>- Debabarrena ESI<br>- Nagusien Kontseilua |

## 3. ERRONKA *Pertsonentzako hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia*

**9. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** — ***GURE NAGUSIAK: Eibar, hiri lagunkoia adinekoekin***

| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | Eibar adinekoekin udalerri lagunkoia izan dadin lortzea; alegia, hiri-ingurune integratzailea eta irisgarria izan dadin, eta zahartze aktiboa susta dezan. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Udalerria adinekoekin lagunkoia izatea eta zahartze aktiboa sustatzea, osasun-, partaidetza- eta segurtasun-aukeraz optimizatuz, pertsonen bizi-kalitatea zahartzen diren neurrian hobetzeko. |
|---|---|---|---|

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| Azpiproiektuak | | Proposamena | Epea | Eragile arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| 9.1. Asistentzia-zerbitzuak hobetzea | 9.1.1. Gizarte-zerbitzuen mapa eta gizarte-zerbitzuen zorroa aplikatzea | Duela gutxi, GFAko Gizarte Politikako Departamentuak Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen mapa onartu du. Hartan, egoitza-plazak handitzea aurreikusita dago. Eibarren, titulartasun foraleko eta zuzeneko kudeaketako zahar-egoitza bakarra dago, baina plaza-gabezia du, eta aldi estrategiko honetan arazo hori konpondu ezean, plaza-gabezia hori handitu egingo da, biztanleria zahartzen ari baita. Hortaz, Eibarren dauden asistentzia-plazak, egoitzak eta etxebizitza tutelatuak, udalerriko beharretara egokitu behar dira. Orobat, gizarte-zerbitzuen zorroa onartuz gero, eskaintza hobetzeko aukera egongo da. | 2016<br>2018 | - Udala<br>- Aldundia |
| 9.2. Barruti soziosanitario bat sustatzea, eta osasunaren eta gizarte-zerbitzuen artean koordinatutako plan bat egitea | 9.2.1. Plan soziosanitario bat egitea | Hemendik urtebetera, gutxi gorabehera, beste ospitale bat jarriko da martxan, gaixotasun kroniko konplexuak dituzten pertsonak artatzeko. Beraz, esparru soziosanitarioko lehen mailako beste ekipamendu bat egongo da Eibarren. Aukera-sektoretzat hartzen dela kontuan izan behar da. Gainera, ospitale hori adinekoentzako bi asistentzia-zentroetatik hurbil dago, eta litekeena da lehen mailako arreta-zerbitzua ere han egotea. Hortaz, osasun- eta gizarte-arloetako langileek kasu soziosanitario konplexuetan batera jarduteko aukera emango duen barruti soziosanitario bat egituratzeko aitzindaria izan daiteke Eibar. | 2017<br>2018 | - Udala<br>- Aldundia<br>- Osasun eta Kontsumo Saila<br>- Debabarrena ESI<br>- Ego-Gain zentroa<br>- San Andres Fundazioa |
| 9.3. Adinekoekin lagunkoia den hiri baterako plana egitea (Euskadi lagunkoia) eta Euskadiko sareari atxikitzea | 9.3.1. Adinekoekin lagunkoia den hiri baterako plana egitea | Adinekoekin lagunkoiak diren hirien mugimendua OMEk sustatutako programa bat da. Eusko Jaurlaritzak bere egin eta gure errealitatera ekarri du. Adinekoek hiri lagunkoiagoak diseinatzen parte hartzea sustatzen duen ekimena da. Programak bere lan-metodoa du; besteak beste, diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko aukera ematen du. Mugimendua zahartze aktiboaren kontzeptuaren barruan sartzen da. | 2016 | - Udala<br>-Eusko Jaurlaritza<br>-Adinekoen elkarteak |

| 3. ERRONKA *Pertsonentzako hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia* | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **9. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | | ***GURE NAGUSIAK: Eibar, hiri lagunkoia adinekoekin*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | | Eibar adinekoekin udalerri lagunkoia izan dadin lortzea; alegia, hiri-ingurune integratzailea eta irisgarria izan dadin, eta zahartze aktiboa susta dezan. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Udalerria adinekoekin lagunkoia izatea eta zahartze aktiboa sustatzea, osasun-, partaidetza- eta segurtasun-aukeraz optimizatuz, pertsonen bizi-kalitatea zahartzen diren neurrian hobetzeko. |
| **PROIEKTUAREN HEDAPENA** | | | | |
| **Azpiproiektuak** | | **Proposamena** | **Epea** | **Eragile arduradunak** |
| 9.3. Adinekoekin lagunkoia den hiri baterako plana egitea (Euskadi lagunkoia) eta Euskadiko sareari atxikitzea | 9.3.3. Belaunaldien arteko harremanetarako programa | Beharrezkoa da Eibarko belaunaldi desberdinetako pertsonen arteko lankidetza, harremana eta elkartrukea sustatzeko jarduerak edo programak egitea, gazteek eta adinekoek trebetasun, ezagutza eta esperientzien berri emateko elkarri. Halaber, adinagatiko diskriminazioari aurre egiteko jarduerak ere bultzatu behar dira; hau da, adinarekin lotutako estereotipoak desagerrarazi. | 2017 | - Udala<br>- Adinekoen elkarteak |
| 9.4. Auzoetan esparru soziokomunitarioak sortzea | 9.4.1. Jarduketa-programa | Esparru soziokomunitarioak behar-beharrezkoak dira bizi-kalitatea hobetzeko, eta auzoak finkatzeko eta hirian integratzeko ezinbesteko hiri-elementuetako bat dira. Beraz, azalerak eta esparruak sortu behar dira, pertsonei truke-aukerak eta atseden- nahiz aisia-lekuak emateko. Esparru horiek giroa garatzeko, egokitzeko eta hautemateko aukera emango dute, eta hori, neurri handi batean, komunitatearen antolamenduaren eta ahalmenaren mendean dago. Ildo horretan, Udalak mekanismo, tresna eta baliabideak ezarri eta bideratu beharko ditu, biztanle gehienen lehentasun eta premiei erantzuteko esparruak aurreikusteko, izateko eta erreserbatzeko. | 2016<br>2017 | - Udala<br>- Elkarteak |

| 3. ERRONKA *Pertsonentzako hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia* | | | |
|---|---|---|---|
| **10. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***GURE GAZTIAK: Eibar, gazteentzat erakargarria*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | Proaktiboki jardutea, gazteek Eibar bizitzeko leku erakargarria dela senti dezaten. Pertsona gazterik ez duen hiri bat dinamismorik eta jarduerarik gabea da. Horretarako, hainbat faktore landu behar dira aldi berean zenbait frontetan: etxebizitza, enplegua, aisia… | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Eibarko gazteen emigrazioa geldiaraztea eta Eibarrera gazteak erakartzea. |

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| Azpiproiektuak | Jarduera-lerroak | Proposamena | Epea | Eragile arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| 10.1. Talentu gaztea atxikitzeko plan bat egitea | 10.1.1. Gazteekin harremanetan egoteko kanal egonkor bat martxan jartzea | Kontsulta- eta eztabaida-mekanismo iraunkorrak ezartzea, gazteei ahotsa emateko, dagozkien gaietan aktiboki parte har dezaten. | Jarraitua | - Udala<br>- Gazteen elkarteak eta kolektiboak |
| | 10.1.2. Talentu gaztea atxikitzeko plana | Hauek hartzen dira talentua duten pertsonatzat: erakundeei balioa emateko emaitzak lor ditzaketen pertsonak, desberdina markatzen duten gaitasunak dituzten pertsonak. Baliabide urria da talentua, bilatu, erakarri eta atxiki beharrekoa. Talentu gaztea atxikitzeko plana eragile ekonomiko eta sozialekin batera gauzatu beharko da. Zenbait modu har daitezke kontuan: bekak, zentroen autokudeaketa… | 2016 | - Udala<br>- Ikastetxeak<br>- Gazteen elkarteak eta kolektiboak |
| 10.2. Gazte enplegurako plan bat egitea | 10.2.1. Gazte enplegurako plana | Kalitatezko enplegua lortzeko aukerak pertsonen trebakuntza profesionalaren araberakoak dira. Hori dela eta, ahaleginik handiena gazteen trebakuntza eta lan-alderdiei buruz duten ezagutza-kapitala hobetzeko egin beharra dago. Egoera horretan, lehentasunezkoa da gazteei informazioa eta prestakuntza ematea, enplegurako heztea eta aholku ematea, baita gazteak lan-bizitza osoan zehar prestatu beharra dagoela ohartzea ere. | 2016 | - Udala<br>- Tailer Eskola<br>- Enpresak<br>- Ikastetxeak |

| 3. ERRONKA *Pertsonentzako hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia* | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **10. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***GURE GAZTIAK: Eibar, gazteentzat erakargarria*** | | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | Proaktiboki jardutea, gazteek Eibar bizitzeko leku erakargarria dela senti dezaten. Pertsona gazterik ez duen hiri bat dinamismorik eta jarduerarik gabea da. Horretarako, hainbat faktore landu behar dira aldi berean zenbait frontetan: etxebizitza, enplegua, aisia… | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Eibarko gazteen emigrazioa geldiaraztea eta Eibarrera gazteak erakartzea. | |
| **PROIEKTUAREN HEDAPENA** | | | | |
| **Azpiproiektuak** | **Jarduera-lerroak** | **Proposamena** | **Epea** | **Eragile arduradunak** |
| 10.3. Gazteen behar eta ahalbideetara egokitutako etxebizitza-eskaintza garatzea, alokairu soziala bultzatuz | 10.3.1. Etxebizitzarako gazte plana | Emantzipazio-prozesu orotan, egoitza-trantsizioa da funtsezko alderdietako bat; hau da, gurasoen etxetik norberaren etxera aldatzea, bizi-proiektu autonomoa gauzatu ahal izateko. Udalak etxebizitzaren arloan egiten dituen jarduketak egokitu behar dira, gazteen benetako ahalbideetara, baldintza materialetara eta bizi-proiektura. Plan Estrategikoan arlo horretan proposatzen diren ekintzen oinarria behar du izan. Gazteak emantzipatzeko diru laguntzarekin jarraitu. | 2017<br>2018 | - Udala<br>- Eusko Jaurlaritza |

| 3. ERRONKA *Pertsonentzako hiri bat: inklusiboa eta lagunkoia* | | | |
|---|---|---|---|
| **11. PROIEKTU ESTRATEGIKOA** | ***GURE UMEAK: Eibar, haurtzaroarekiko hiri lagunkoia*** | | |
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | Proaktiboki jardutea, Eibarren bizi direnek nahi duten seme-alaba kopurua izan dezaten, eta lehendik dituztenek, berriz, ingurune egokia haiek hezteko eta hazteko. Erreferentzia-esparru dira, baina ez bakarrak, Eusko Jaurlaritzaren Familiaren aldeko Erakunde Arteko III. Plana eta UNICEFek sustatzen duen Haurren Lagunak diren Hiriak, non gida bat proposatzen baita tokiko gobernuetan haurrentzat eta nerabeentzat planak garatzeko. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Nahi den seme-alaba kopurua edukitzeko erraztasunak ematea, bai eta haiek hazteko eta hezteko ere. Jaiotza-tasa handitzea |

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| Azpiproiektuak | Jarduera-lerroak | Proposamena | Epea | Eragile arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| 11.1. Haurrentzako eta nerabeentzako plana | 11.1.1Haurrentzako eta nerabeentzako planak | Neska-mutikoen eta nerabeen eskubideak eta ongizatea bermatzea dute helburu Haurrentzako eta Nerabeentzako Planak deritzen ekimenek. Gasteizko Udalaren Haur eta Nerabeentzako Planak dioenez, "berariazko eginkizuna eta erantzukizuna ditu udal-administrazioak alor horretan, zenbait arrazoirengatik: gizartetik gertu dagoelako, eskumenak badituelako, haurren eta nerabeen arazoek eta ahalmenek arduratzen dutelako, eta gizartearen zerbitzura jarduten duelako, baliabideak eta programak kudeatuz". Horra, bada, Haur eta Nerabeentzako Plan bat eratzeko ildo nagusiak | 2018 | - Udala |
| 11.2. Hezkuntza eta aisialdirako zerbitzuak hobetzea eta areagotzea | 11.2.1. Hezkuntza eta aisialdirako zerbitzuak hobetzea eta areagotzea | Aitzindaria da Eibar haurrentzako aisialdi eta denbora librerako zerbitzuak eskaintzen opor-garaian; hala eta guztiz ere, neska-mutikoen eta nerabeen hezkuntza eta aisialdirako baliabideak hobetzeko eta areagotzeko, lagundu egin behar zaie familiei seme-alaben heziketa-lanean, eta, alde horretatik, hiri erakargarri bihurtu Eibar. Honenbestez, guraso-elkarteekin, ikastetxeekin eta aisialdiaren eta denbora librearen alorreko enpresekin elkarlanean jardun behar da, ikuspegi komunitarioa eta lankidetza sustatuz. | 2017<br>2018 | -Udala |

| 12. PROIEKTU ESTRATEGIKOA | *Gobernantza-eredua: Gardentasuna, eraginkortasuna eta parte-hartzea* | | |
|---|---|---|---|
| **HELBURU ESPEZIFIKOAK** | Gobernu Ona ahalbidetzea eta baliabide publikoen kudeaketa gardena egitea. Politikaren eta Herri Administrazioaren benetako helburua herritarrak zerbitzatzea da. Horrek izan behar du kudeaketaren mamia. Helburu hori gogoan izanda, Eibarko Udalak efizientzia eta efikazia hobetu nahi ditu.<br>Beraz, beharrezkoa da administrazioen eta Udalaren beraren artean koordinazio sendo eta eraginkorra izatea. Politika publikoak batera eta koordinatuta proposatuz gero, haien onurak handitu egin daitezke. Administrazio sinpleagoa eta errazagoa lortzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, eta haiei beren proiektu pertsonalak edo profesionalak garatzeko aukera emateko. | **ITXARONDAKO EMAITZAK** | Herritarrak hurbilen duten erakundera hurbiltzea eta kudeaketa publikoa pertsona guztien zerbitzura egotea, efikaziaren eta efizientziaren arteko oreka bilatuz, eta betiere, gardentasun-konpromisoari atxikita, hiritartengan parte-hartze kultura bultzatuz. |

**PROIEKTUAREN HEDAPENA**

| Azpiproiektuak | Jarduera-lerroak | Proposamena | Epea | Eragile arduradunak |
|---|---|---|---|---|
| 12.1. Proiektu estrategikoak aintzat hartzeko itun politiko bat adostea. | 12.1. Plan estrategikoaren kudeaketa Alkatetzari esleitzea | Planean ezarritako jarduketak egiteko akordio politikoa lortzea. Planean ezarritako jarduketak egiteko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak adostea. | 2016 | - Alderdi politikoak |
| 12.2. Udal-kudeaketako eredu berri bat martxan jartzea | 12.2.1. Udal-arloak koordinatzeko sistematika bat martxan jartzea: Batzorde politiko-teknikoa | Egiaztatuta dago udal-antolaketako egungo ereduak prozedurazko beharrei erantzuten diela aspaldi. Hori dela eta, izapide burokratikoak ugaritu, erabakiak hartzea zaildu, eta batzuetan, deskoordinazioa sortzen du arlo politikoaren eta teknikoaren artean. Hortaz, udal-kudeaketa aurreraturako, lan egiteko beste modu eta ikuspegi batzuk behar dira. Gaur egun, behar-beharrezkoa da arlo politikoa eta teknikoa koordinatuta egotea, eta sistematikoki lankidetzan aritzea, zalantzarik gabe. Beharrezkotzat jotzen da batzordeen funtzionamenduari buruzko hausnartzea, hiritarren partaidetza laguntzeko. | 2016 | - Gobernu-taldea |
| | 12.2.2. Administrazio elektronikoa | Eibarko Udala egokitzen eta bere administrazio-prozedura hobetzen hasi zen, eibartarrek Udala 365 egunetan eta 24 orduetan eskura izan dezaten. Kanal telematikoa gutxi erabili izan da, identifikazio-zailtasunak eta administrazioen arteko elkarreragingarritasun-maila txikiak direla eta. Identifikazioari dagokionez, zailtasun horiek laster konponduko dira (sinadura elektroniko errazagoa eta adeitsuagoa). Aurreikusten da plan estrategiko honen denbora-esparrua bi oztopo horiek gainditzea. Beraz, litekeena da Administrazio Elektronikoa laster behin betiko abian egotea. | Jarraitua | - Udala |

<table>
<tr><th colspan="2">12PROIEKTU ESTRATEGIKOA</th><th colspan="3">Gobernantza-eredua: Gardentasuna, eraginkortasuna eta parte-hartzea</th></tr>
<tr><td colspan="2">HELBURU ESPEZIFIKOAK</td><td>Gobernu Ona ahalbidetzea eta baliabide publikoen kudeaketa gardena egitea. Politikaren eta Herri Administrazioaren benetako helburua herritarrak zerbitzatzea da. Horrek izan behar du kudeaketaren mamia. Helburu hori gogoan izanda, Eibarko Udalak efizientzia eta efikazia hobetu nahi ditu.<br>Beraz, beharrezkoa da administrazioen eta Udalaren beraren artean koordinazio sendo eta eraginkorra izatea. Politika publikoak batera eta koordinatuta proposatuz gero, haien onurak handitu egin daitezke. Administrazio sinpleagoa eta errazagoa lortzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, eta haiei beren proiektu pertsonalak edo profesionalak garatzeko aukera emateko.</td><td>ITXARONDAKO EMAITZAK</td><td>Herritarrak hurbilen duten erakundera hurbiltzea eta kudeaketa publikoa pertsona guztien zerbitzura egotea, efikaziaren eta efizientziaren arteko oreka bilatuz, eta betiere, gardentasun-konpromisoari atxikita, hiritartengan parte-hartze kultura bultzatuz.</td></tr>
<tr><th colspan="5">PROIEKTUAREN HEDAPENA</th></tr>
<tr><th>Azpiproiektuak</th><th>Jarduera-lerroak</th><th>Proposamena</th><th>Epea</th><th>Eragile arduradunak</th></tr>
<tr><td rowspan="3">12.3. Partaidetza-, gardentasun- eta komunikazio-politika bat sustatzea</td><td>12.3.1. Gardentasun Ataria</td><td>Eibarko Udala Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarean parte hartzen hasi da. Lehen urrats garrantzitsua da. Aldi estrategiko honetan, parte-hartze horretatik ondorioztatzen diren konpromiso guztiak garatzea izango da erronka nagusia. Lehen konpromisoa Gardentasun Ataria da.</td><td>2016</td><td>- Udala</td></tr>
<tr><td>12.3.2. Partaidetza-estrategia adostua: Parte-hartzerako heziketa</td><td>Parte-hartzea sustatzeko, motibazioa eta prestakuntza landu, eta parte hartzeko benetako bideak sortu behar dira (NAHI IZATEA, JAKITEA, AHAL IZATEA), gazteenekin hasita. Hortaz, plan honen lehentasunezko alderdietako bat Parte-hartzerako Heziketa da. Horren helburua da herritarrei ezagutza, gaitasun, balio eta motibazioak ematea, gizartean aktiboki parte har dezaten.</td><td>2017</td><td>- Udala<br>- Herritarren elkarteak<br>- Ikastetxeak</td></tr>
<tr><td>12.3.3. Komunitate-garapena sustatzea</td><td>Komunitateko kideen bizi-kalitatea hobetzea, giza garapenaren oinarrizko alderdiak aintzat hartuta. Herritarrak ahalduntzea eta garapen-baliabide estrategiko gisa erabiltzea, haien eskura jarrita dauden baliabide guztien kudeaketa efiziente, efikaz eta eraginkorrarekiko duten ikuspegia sustatuz. Herritarrek parte hartzeko prozesuak komunitate-bizitzako egoera guztietan bideratzea, arazoak identifikatu eta haiek konpontzeko erabakiak hartze aldera.</td><td>Jarraitua</td><td>- Udala<br>-Elkarteak<br>-Herritarrak</td></tr>
</table>



# Planaren Kudeaketa

# 5. Planaren Kudeaketa

## 1. Planaren iraunaldia

Plan honek 2025era arte iraungo du. Urtean behin, Planean zehaztutako Erronken eta Proiektu Estrategikoen betetze-maila ebaluatuko da. Hala ere, tarteko ebaluazioa 2020an egingo dela ezarri da. Hartan, Erronkak eta, bereziki, proposatutako 11 proiektuak zenbateraino bete diren aztertuko da, baita Planean ezarritako Ikuspegia betetzen nola lagundu duten ere. Hartara, kudeaketaren zikloa (PDCA) aintzat hartuz, tarteko ebaluazio horrek Planaren edukiak egokitzeko aukera emango du, ezarritako epean Erronkak lortze aldera.

## 2. Kudeaketa-eredua

Plana garatzeko hainbat eragilek parte hartu behar dutenez, beharrezkoa da ordenaz jardungo dela bermatzen duten koordinazio-mekanismoak sortzea. Testuinguru horretan, Udalak garatu beharreko harreman- eta koordinazio-mekanismoak ezarri dira (koordinazio horren ardura Alkatetzaren esku uztea proposatzen dugu). Mekanismo horiek Udalaren barruan aplikatu behar dira, udal-arloen artean, baina baita kanpoan ere; hain zuzen, Udalaren eta Planaren garapenean inplikatuta dauden organismo publikoen (GFA, EJ…), beste erakunde batzuen eta gizarteko gainerako eragileen artean.



Barne-kudeaketako sistemari dagokionez, plan honetako proiektu estrategikoak eta azpiproiektuak Jarraipen Estrategikoko Taldearen eta, horrenbestez, Batzorde Tematikoen ardura izango dira. Batzordeek gauzatu beharko dituzte planean adierazitako ekimenak, aurreko grafikoan ikus daitekeenez.

•**Jarraipen Estrategikoko Taldea** udal-teknikariek osatuko dute. Talde horrek 11 proiektu estrategikoen betetze-mailaren jarraipena egin beharko du, eta beste ekimen eta proiektu batzuk proposatu.

•**Barne Lantaldeak** proiektu estrategikoak adina izango dira. Beraz bakoitzak proiektu estrategiko batez arduratu beharko du. Udal-teknikariek eta Gobernu Taldeko politikari batek osatuko dute bakoitza.

•**Kanpo Lantaldeak** udal-teknikariek eta kanpoko eragile sozioekonomikoek osatuta egongo dira, eta egindakoa eragileekin egiaztatzeko balioko dute. Beraz, eragile publiko eta pribatuen arteko konpromisoa eta elkarlana sendotzen da, eta horri esker, sektore eta eragile sozioekonomikoen beste behar batzuk ere hauteman daitezke.

•Azkenik, **Foro Estrategiko** bat eratzea proposatzen da. Plana garatzeko behar diren udalaz gaindiko pertsonek eta erakundeek osatuta, Planaren garapena ikuskatu beharko du.



3. Ziklo estrategikoa

Eibar 2025erako Plan Estrategikoaren oinarrizko lerroak biltzen dituen dokumentua da Plana. Estrategia zehazteko, hausnarketa, egiaztapena eta parte-hartzea behar izan dira, aurreko faseetan azaldu denez. Estrategia Planean adierazi denez, beharrezkoa da Planaren jarraipena, ikuskapena eta kontrola egitea erraztuko duten tresnak zehaztea. Ildo horretan, 2025erako Planaren ziklo estrategikoari heldu beharko zaio; horretarako, hainbat mekanismo ezarriko dira.

Planaren kudeaketan, Jarraipen Estrategikoko Taldeari dagokio lidergoa. Talde horrek ziklo estrategikoa kudeatzeko mekanismo hauek jarriko ditu martxan:

- Plan Operatiboak.
- Agintari Talde Estrategikoa.



## 4. Plan Operatiboak

Eibar 2025eko erronkak eta ikuspegi estrategikoa lortzeko garatu behar diren oinarrizko alderdiak biltzen dituen tresna izan behar dute Plan Operatiboek. Plan Operatiboak urtean behin proposatzen dira, programatutako mugarriak egin ahal izateko. Barne- eta kanpo-lantaldeek parte-hartze aktiboa dute beti, eta ebaluazio-prozesua arina da eta aldian behin egiten da. Plan operatibo horiek Plan Estrategikoan egindako ebaluazioen arabera esleitutako ekimenetatik sortuko dira, eta ekimen horiek zehaztu eta eraginkor bihurtu behar dituzte.



## 5. Jarraipen eta Ebaluazio Plana

Plan honetako proiektu eta erantzukizunen betetze-maila urtean behin ebaluatuko da, Erronkak lortzeko prozesuan desbiderapenik dagoen hautemateko eta, halakorik balego, zuzentzeko; beraz, inplementatutako ekintzetan hobekuntzak identifikatzeko.

Jarraipena ere urtean behin egingo da. Jarraipen Estrategikoko Taldea eta Barne Lantaldeak arduratu egingo dira. Orobat, beharrezkoa izango da Planaren emaitza eta aurrerapenen berri ematea, bai Gobernu Taldean, bai lantaldeetan baita udal batzorde guztietan ere. Behar izan ezkero urteko Udal Batza monografiko bat deituko da planaren aurrepausuak eta emaitzak aztertu eta ebaluatzeko.

## 6. Komunikazio Estrategia

Komunikazio Estrategiak **Eibar 2025erako Plan Estrategikoaren** esparruan garatu beharreko ekimenak herritarrei jakinarazteko komunikazio-mekanismoak biltzen ditu

Estrategia azaltzea oso garrantzitsua da, Planean inplikatutako eragile guztien konpromisoa lortzeko. Ildo horretan, estrategia kudeatzeko tresna batez gain, komunikazioa Eibar 2025erako Estrategiaren berezko zati bat da.

Beraz, Komunikazio Estrategiaren xedea da eragile guztiek helburuekiko konpromisoa izatea, Eibarko Udaletik kanpoko eragileek, bai plana gauzatzen jarduten duten Udaleko pertsona guztiek. Halaber, funtsekoz da udalerriko herritar guztiei Estrategiaren irismenari, garapenari eta emaitzei buruzko informazioa ematea.

Estrategiak komunikazio-plan bat zehazteko erabili ohi diren parametro guztiak hartu behar ditu kontuan:

•Jakinarazpen bakoitzaren helburu: Komunikazio-ekintza bakoitzaren zergatiak zehaztuko dira (esaterako, prozesuaren aurrerapenen berri ematea, fase baten emaitzak jakinaraztea, partaidetza sustatzea…).

•Ekintzaren xede-publikoa: Eibar 2025erako Plan Estrategikoaren kasuan, hauek dira komunikazio-ekintzen xede-publikoak:

- Herritarrak.
- Udal-teknikariak.
- Enpresak eta elkarteak
- Estrategia garatzeko beharrezkoak diren aliatuak diren erakunde eta organismoak.

•Transmititu beharreko eduki, mezu eta ideiak.

•Erabili beharreko baliabide eta euskarriak: Komunikazio-plan batean, askotariko baliabide eta euskarriak erabil daitezke (Udalaren webgunea, prentsaurrekoak edo prentsa-oharrak, aurkezpen publikoak, berariazko argitalpenak, etab.). Betiere, Udalaren baliabideen efizientzia-, eraginkortasun- eta erabilgarritasun-irizpideen arabera, eta proiektu estrategikoa egiteko epeak kontuan hartuta.

## 6. Komunikazio Estrategia (jar.)

Komunikazio Estrategia tresna bizitzat hartzen da, eta estrategiaren garapen-baldintzen araberakoa da. Hala ere, bi une azpimarratu behar dira bereziki:

•Estrategia martxan jartzean, funtsean hura onartzeko prozesua, ondorioztatutako eta adostutako helburuen eta lan-lerroen berri eman behar baitzaie prozesu horretan parte hartzen duten edo inplikatuta dauden eragileei.

•Estrategia gauzatzean:

- Aurrerapenak aldian behin jakinaraztea.
- Urtero egin beharreko ekimenak jakinaraztea.

Komunikazio-estrategiak hiru lerro ditu:

## 6. Komunikazio Estrategia (jar.)

| Norentzat | Zertarako | Zer |
|---|---|---|
| **Barrukoa (Udala)** | • Udal-arloek Estrategia 2025eko helburuak lortzeko bat egin dezaten. | • 2025erako Plan Estrategikoaren eta udal-antolaketan eraginik handiena izango duten lan-lerroen berri ematea.<br>• Estrategiaren gauzatze-maila eta lortutako emaitzak aldian behin jakinaraztea. |
| **Kanpokoa (Eragile sozioekonomikoak)** | • Udalerriko jarduera sozioekonomikoarekin zerikusia duten eragile publiko eta pribatuek estrategiarekin bat egiten dezaten. | • Zehaztutako 12 proiektuen helburu eta ekimen nagusien berri ematea.<br>• Lortutako emaitzak jakinaraztea. |
| **Herritarrak** | • Iritzi publikoa sentsibilizatzeko, bai Eibarko Plan Estrategikoarekiko, bai zehaztutako udalerri-eredu berriarekiko. | • Hedabideak estrategia martxan jartzearen, urteko planen, jarraipen-txostenen eta urteko memorien jakinaren gainean egongo dira, prentsa-oharren bitartez.<br>• Herritarrek estrategia martxan jartzearen berri izango dute, informazio-kanpaina baten bidez. Urteko planei, jarraipen-txostenei eta urteko memoriei buruzko informazioa webgunean argitaratutako informazio-oharren berri jasoko dute. |



# PARTE-HARTZE PROZESUA

# 6. PARTE-HARTZEA: elkarrizketak eta bilerak

| ESPARRUA | Data |
|---|---|
| **Sistema ekonomikoa** | 2014/12/11 |
| | 2014/12/16 |
| | 2015/01/22 |
| **Hiri-sistema** | 2014/12/16 |
| **Sistema soziala** | |
| • Immigrazioa | 2014/12/17 |
| • Berdintasuna | 2014/12/18 |
| • Gizarte-zerbitzuak | 2015/01/09 |
| • Egoibarra | 2014/12/18 |
| • Euskara | 2015/01/15 |
| • Kirola | 2014/12/18 |
| • Kultura | 2015/01/14 |

**Sistema ekonomikoa**
SPRI
Debegesa
Tekniker-IK4
Bic Berrilan
Armagintza Eskola
Jaz Zubiaurre
ABC
Aibe
Orguisa
Tidelabs
EPC
Apel
Urkotronik
Code & Syntax
Ekingune elkartea

**Hiri-sistema**
Debegesa
Debemen
Tekniker IK4

**Sistema soziala**
SAFA elkartea
Berdintasun Kontseilua (6 pertsona)
Egoibarra (6 aholkulari)
Kirol-kluba
SD Eibar
Errugbi Taldea
Waterpolo taldea
Gurutze Gorria
Debabarrena ESI (2)
Caritas
Gurutze Gorria
Garagune
San Andres zahar-etxea
Euskara Mahaia (11 pertsona)

**Udal teknikariak**
Udal-arkitektoa
Immigrazio-teknikaria
Euskara-teknikaria
Kultur Arloko burua
Berdintasun-teknikaria
Gizarte Zerbitzuen Arloko burua
Kirol Patronatuko arduraduna

# PARTE HARTZEA: herritarren foroa







- Udalak **eibartarren talde bat** osatu nahi zuen, Plan Estrategikoko eta Mugikortasun Planeko aurretiko proposamen estrategikoak azter zitzaten. Horretarako, zozketa bat egin zuen herritarren artean, aldagai hauek kontuan hartuta: sexua, adina eta erroldatze-kalea.

- Horrenbestez, **IGP metodologiari (Interbentzio Gune Parte-hartzaileak)** jarraituz, zozketan aukeratutako pertsonei **bileretan** beren borondatez parte hartzeko gonbita egin zitzaien. Bilerak 2016ko apirilean egin ziren, ordena honetan:

  - Aurkezteko **hasierako bilera:** Apirilaren 12a
  - Edukiei buruz **eztabaidatzeko bilera:** Apirilaren 19a
  - Amaierako **ondorioei buruzko bilera:** Apirilaren 26a